

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1965

EBAZPENA, 2015eko apirilaren 16koa, Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariarena, 2014-2015 ikasturtean ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden ikasleak, fisikoki, psikikoki edo sentsorialki elbarrituta daudenak, garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deialdia ebazten duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko abenduaren 10eko Agindua-
ren bidez, 2014-2015 ikasturtean ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe
pribatuetan eskolatuta dauden ikasleak, fisikoki, psikikoki edo sentsorialki elbarrituta daudenak,
garraiatzeko banan-banako diru-laguntzetarako deia egiten da, eta aplikatu beharreko irizpideak
arautzen dira.

Lurralde Historikoek egindako proposamenak aztertu eta aipatutako deialdian ezarritako irizpi-
deak aplikatuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdiko baldintzak bete dituzten Lurralde Historikoetako ikasleei laguntza ematea.

Ebazpen honen diru-zenbatekoa, guztira, 2.293.188 eurotako da, ondoren zehazten den bezala banatuta:

Araba: 228.530,13 euro.

Bizkaia: 1.313.809,50 euro.

Gipuzkoa: 750.848,37 euro.

Bigarrena.– Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan argitaratzeko agintzea.

Gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari administrazio-bideari
amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta
Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 114. eta 115. artikuluetan
xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 16a.

Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria,
MARÍA BEGOÑA GARAMENDI IBARRA.